

Hegaztiak

Haginari gehien lotutako fauna hagin haziak barreiatzen dituen da. Oso garrantzitsuak dira birigarroak eta zozoak (*gén. Turdus*), baina baita ere txinboak (*Sylvia atricapilla*), txantxangorriak (*Erithacus rubecula*), arabazozoak (*Sturnus sp.*) edo eskinosoak (*Garrulus glandarius*). Haginaren arilo gorri mamitsuak erakartzen ditu horiek guztiak, eta gorozkien bitartez zabaltzen dituzte haziak.

Gorosti eta hagin multzoak ohikoak izateko arrazoia da, hein handi batean, zozoek bezalako frugiboroek oso gustuko dituztela horien fruituak.

Beste hegazti batzuek intsektuak bilatzen dituzte haginaren adar-enborretan, horien artean egonik kaskabeltzak eta amilotxak (*Parus sp*), buztanluzeak (*Aegithalos caudatus*), erregetxoak (*Regulus sp*), txioak (*Phylloscopus sp*) etab.

Halaber, hagin basoetan aurkitzen dira zapelatzak (*Buteo buteo*), aztoreak (*Accipiter gentilis*), etab., harrapakinen bila (belea, belabeltza, eperra, pagausoa, etab).

fauna eta hagina

Zozoa (*Turdus merula*)Birigarro txikia (*Turdus iliacus*)

Hagin eta gorosti plantulak pagadi pean


Ugaztunak

Ugaztun ugarik ere barreiatzen dute haginaren hazia: azeria (*Vulpes vulpes*), lepahoria (*Martes martes*), lepazuria (*Martes foina*), azkonarra (*Meles meles*), etab.

Basoko belarjaleek adarrak jaten dituzte: oreina (*Cervus elaphus*), orkatza (*Capreolus capreolus*), eta berdin taxina toleratzen duten etxekoek ere (behia, ahuntza, etab.).

Haginen inguruan bizi dira baita ere satitsuak (*Sorex. Sp*), trikuak (*Erinaceus europaeus*), satorrak (*Talpa occidentalis*), karraskariak (katagorria (*Sciurus vulgaris*), lursagua, sagua, arratoia, muxarra, etab.) eta saguzarrak.


Gaueko harrapariak eta ugaztun haragijaleak ere aurki daitezke, hala nola basakatua (*Felis silvestris*), katazuria (*Mustela erminea*), erbinudea (*Mustela nivalis*), katajineta (*Genetta genetta*), etab., eta otsoaren (*Canis lupus*) eta hartz arrearen (*Ursus arctos*) arrastoak ere ez dira ezohikoak.



Argazkiak : Fco. Javier Ezquerro Boticario / LIFE BACCATA proiektuko bazkideak

www.life-baccata.eu

BAZKIDEAK



LAGUNTZAILEAK

